



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2024IPLE0010

Eguna: 2024-10-01

Ordua: 19:00 – 19:41

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2024ko uztailaren 16ko akta onartzea.
- 2.- Zerga Fiskalak 2025. Hasierako onarpena
- 3.- Kreditu aldaketa. Kreditu transferentzia. KALD-0006
- 4.- Kreditu aldaketa. Kreditu gaikuntza. KALD-0008
- 5.- Kontratazio-espeditentea: Esku-hartze eta prebentzio sozioedukatibo eta/edo psikosozialeko zerbitzuaren 2 loteetako kontratuen prezio eguneratzeko eskaerak.
- 6.- Bateragarritasun-eskaera bati buruz maiatzaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren kontrako berraztertze errekurtsoa.
- 7.- Txalaka Araneder S-27 Sektoreko E-1 lurzatiaren hiri antolamenduko Plan Bereziaren testu bategina.
- 8.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2024ko uztailaren 16ko akta onartzea.

Aitor eta Olaia zinegotziak abstenitu egin da aurreko bileran ez zirelako egon. Gainerakoek, berriz, alde

bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2.- Zerga Fiskalak 2025. Hasierako onarpena.

Alkateak azaldu du zerga fiskalak osatzeko 4 aldagai izan dituztela kontuan (udalak erosketa ahalmena galdu izana, inguruko herrialdearekin konparatuz presio fiskala txikiagoa izatea, beste udalerrieriko familien errenta eskuragarria altuagoa izatea, eta hobari sistema sendo bat izatea baliabide gutxi dituztenentzat), eta oro har %3,6ko igoera planteatzen dutela (alegia, KPIa eta puntu bat).

Gaineratu du igoera handiena hondakinen bilketan aurreikusten dela, 7/2022 Legeak ezartzen duelako zerbitzuaren kostua ordaindu behar dela udalek ezartzen dituzten tasekin. Baina tarifen berrontolaketa ere proposatzen dutela: etxebizitzetan errolatutako herritarren arabera tarifa eta hobariak ekarpen gunea erabili behar dutenentzat; eta komertzioetan, berriz, azaleraren arabera tarifa.

Ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehena.- Ordenantza fiskalei buruzko Testu Bateginaren hasierako onespena, 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean jartzeko.

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onespeneren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunez.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztuz gero, Ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebaztiko dira.

Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onspen-erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Maria zinegotziak aurreratu du bere taldeak kontra bozkatuko duela, herritarrek ere erosketa ahalmena galdu dutelako eta proposatutako igoera gehiegizkoa iruditzen zaielako, eta aurreko urtean igotako hondakin-tasa ere horrela izan zela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu kideena) eta kontrako 3 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

3.- Kreditu aldaketa. Kreditu transferentzia. KALD-0006.

Alkateak kreditu aldaketaran arrazoiak eman ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditu transferitutako duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERSONAL GASTUAK	1.598.650,64	123.329,11	1.475.321,53
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	560.400,00	120.550,00	439.850,00
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	89.000,00	6.300,00	82.700,00



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

GUZTIRA	2.248.050,64	250.179,11	1.997.871,53
---------	--------------	------------	--------------

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	0,00	570,00	570,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	480.096,95	148.400,00	628.496,95
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	10.000,00	10.000,00	20.000,00
	INBERTSIO ERREALAK	0,00	85.800,00	85.800,00
	FINANTZA AKTIBOAK	0,00	5.409,11	5.409,11
	GUZTIRA	490.096,95	250.179,11	740.276,06

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

4.- Kreditu aldaketa. Kreditu gaikuntza. KALD-0008.

Alkateak kreditu aldaketaren zergatia azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	gehikuntza
6	INBERTSIO ERREALAK	4.500.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		4.500.000,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	4.500.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		4.500.000,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu kideena) eta 3 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

5.- Kontratazio-espeditzea: Esku-hartze eta prebentzio sozioedukatibo eta/edo psikosozialeko zerbitzuaren 2 loteetako kontratuen prezio eguneratzeko eskaerak.

Alkateak eskaeraren nondik norakoak azaldu ditu, eta adierazi beste batzuetan kontratu amaitutzat eman eta berri bat egin izan ohi dela, baina kasu honetan ez duela astirik ematen horretarako. Ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehena.- Ez onartzea Intervención Socieducativa KALEXKA enpresak aurkeztutako eskaera, lan-hitzarmen berri bat indarrean sartzeak sortutako desoreka ekonomikoari aurre egiteko zerbitzu-kontratua aldatzeko.

Bigarrena.- Ez onartzea Aisialdirako Zerbitzuak SLUK kontratuaren prezioa berrikusteko eta hitzarmen kolektibo berri bat indarrean jartzeak sortutako desoreka ekonomikoari aurre egiteko aurkeztutako eskaera.

Hirugarrena.- Intervención Socieducativa KALEXKA eta Aisialdirako Zerbitzuak SLU enpresei jakinaraztea, kontratuen luzapena indarrean jartzen denean, prezioa berrikusiko dela baldintzen agiriaren arabera, hau da, aurreko urte naturaleko Gipuzkoako Lurralde Historikoko kontsumoko prezioen indize orokorra aplikatuko dela, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean funtzionario publikoen soldatak igotzeko ezartzen den mugarekin.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Intervención Socieducativa KALEXKA eta Aisialdirako Zerbitzuak SLU sozietateei, udal-idazkariaren txostenarekin batera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu kideena) eta 3 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

6.- Bateragarritasun-eskaera bati buruz maiatzaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren kontrako berraztertze errekurtsoa.

Alkateak errekurtsoaren eta horren inguruan udal idazkariak egindako txostenaren nondik norakoak azaldu ditu, eta ondoren, Kudeaketa, Berrikuntza eta Pertsonal batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- EZEZTEA Tito Perkaz Imaz jaunak jarritako berraztertze errekurtsoa.

Bigarrena.- Akordioa Tito Perkaz Imaz-i jakinaraztea, txosten juridikoaren kopia batekin batera.

Maria zinegotziak adierazi du espeditze horren inguruan hitz egin duela udal-idazkariarekin, eta alkateari galdetu dio, errekurtsoa ezeztearekin arkitektoak bateragarritasuna izango duen eta hori gizarte langileari ezarritako baldintza berdinetan izango den. Eta alkateak baietz erantzun dio.

Jarraian, bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

7.- Txalaka Araneder S-27 Sektoreko E-1 lurzatiaren hiri antolamenduko Plan Bereziaren testu bategina.

Alkateak plan berazi izapidetzearen arrazoiak eman ondoren, hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- HAPOko Txalaka-Araneder S-27 sektoreko E-1 lurzatiaren hiri-antolamenduko plan bereziaren testu bategina behin betiko onartzea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrenena.- ASTIGARRAGA EUROHOSTELS SLren ordezkariari ohartaraztea, obrak egiteko, Añarbeko Uren 2024ko ekainaren 11ko txostenean eskatutako zehaztapenak bete beharko direla eta lurzoru publikoaren lagapena lehen erabilerako lizentzia eman aurretik egingo dela.

Hirugarrena.- Aurreko erabakian aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gordailutu dezan, argitaratu aurretik.

Laugarrena.- Behin betiko onespeneren erabakiaren eduki osoa eta hirigintza-arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana aipatutako erregistroan gordailatu dela adierazita.

Bosgarrena.- Behin betiko onespeneren erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoan gehien saltzen den egunkarian edo egunkarietan eta Udalaren web-orrian argitaratzea.

Seigarrena.- Erabaki hau ASTIGARRAGA EUROHOSTELS S.L. enpresaren ordezkariari jakinaraztea.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

8.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Añarbeko 2. kanala eta Oiarbide bidea berritzeko obra-kontratua.

Alkateak azaldu du Añarbeko bigarren kanaleko obrak hasi direla Astigarragan, eta aurreikusitakoa baino azkarrago joatea aurreikusten dela, hodiak 3 metrora joango baitira, 5 metrora joan beharrean.

Adierazi du Udalak dagoeneko egin dituela eskatu zitzaizkion egokitzapenak, eta Kale Nagusiaren zati bat itxi dela.

Bestalde, azaldu du obra horiek egiteko Oiarbide bidea erabiliko dutela (Udalak konpontzea kontratatu berri duena), eta ondorioz, erabaki dela bidea konpontzeko lan guztiak orain egitea, asfaltatua izan ezik, eta hori Añarbeko obra amaitu ondoren egitea.

b.- 2025eko udal aurrekontua.

Alkateak azaldu du aurrekontua lantzen hasiak direla, eta hori hasierako izaeraz onartzeko aurreikusitako egutegiaren berri eman du: urriaren 2. astean aurkezpena, 2 aste ematea emendakinak aurkezteko, azaroaren 19ko ogasun batzordean aztertzea eta azaroaren 26ko udal osoko bilkuran hasierako izaeraz onartzea.

c.- Parte-hartze prozesuak.

Alkateak azaldu du bi parte-hartze prozesu jarri direla martxan: * Gazteak eta * elkargunea +55. Lehendabizikoa kultur etxe zaharraren erabilera-antolaketaren inguruan, eta bigarrenena, Aiortzategiko lokala 55 urtetik gorako herritarren gunea bilakatzeke.

d.- Sarrerako joko-aretoa

Maria zinegotziak adierazi du kexak jaso dituztela udalerriko sarrerako jolas-eremuan beheragunerik ez dagoelako.

e.- Hurritza.

María zinegotziak galdetu du Kutxako bidean zeuden hurritzak berriro jarriko diren.

Alkateak azaldu dio horiek kendu zirela Donostia ibilbideko urbanizaio lanak egiteko, eta ez direla beste leku batean jarriko, baina horiek kendu ondoren landaketa berriak egin zirela.

f.- udal langileen uko egiteak.

María zinegotziak adierazi du harrituta eta kezkatuta dagoela bi langilek beren lanpostuei uko egin dietelako eta diruzain-lanpostua ere bete gabe dagoelako.

Alkateak azaldu dio egonkortze-prozesuak direla eta langileen mugimendu asko daudela. Eta kontuhartzaileak lanpostuari uko egin bezain pronto, udala lanpostu hori betetzeko urratsak ematen hasi zela, horrelako lanpostuetarako ezarritako prozeduraren arabera. Azaldu du lehen urratsa izan zela Aldundiari eskatzea izandapena egitea, baina gaikuntza nazionalako inork ez zuenez eskaintza onartu, Eusko Jaurlaritzari eskatu zaiola behin-behineko izendapena egin dezala dauzkaten lan-poltsak erabiliz (kontuhartzaitza eskalako inork ez duenez onartu, orain idazkaritza-kontuhartzaitza eskalako lan-poltsetatikdeitzen hasi dira), eta, lortuko ez balitz, Aldundiak baimena eman duela Gipuzkoako lan-poltsak erabiltzeko (dagoeneko lortu dituenak), eta azken kasuan hautaketa-prozesua egin beharko dela.

María zinegotziak galdetu du diruzain-lanpostua betetzeko prozedura bera ezin ote zen jarraitu, eta alkateak erantzun dio prozedura hori jarraitzen ari direla, eta une honetan Eusko Jaurlaritza behin behineko izendapena egitean saiatzen ari dela, eta Gipuzkoako lan-poltsak ere lortu dituela udalak, jaurlaritzak izendapena egingo ez balu, prozesuarekin ahalik eta azkarren jarraitzeko.

Bukatzeko, alkateak hautaketa-prozesuen egoeraren berri eman du, eta adierazi du iaz martxan jarri ziren 6etatik, bakarra geratzen dela amaitu gabe, eta hilaren bukaeran amaitzea aurreikusten dela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2024ko urriaren 1ean.


Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria.